



OIHERNARTEN GAZTAROA NEURTITZETAN ETA BESTE

Bertsio informatiko honen egileak: Iolanda Beristain,
Maitane Amorena eta Iker Zaldúa.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OihenartNeurtitzak.htm>

Arnaud Oihenart

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

I

Erranen duta? ahal dezaket,

Egia dena bezala,

Zu begistatuz geroz laket

Zu bezi ehor etzautala.

Bana zer hobe, zuk gorreti

Badagidazu zur' aldeti?

Bana zer hobe, zuk' gorreti

Badagidazu horla beti?

Geroz oihana lilitu da

bait' ar'orstatu lauretan;

Ud' ere negu, negi'uda

gerthatu da hain berzetan.

Bana zer hobe etc.

Arte hartan, zer eztut egin

Zureki adizkidetzeko?

Zuk nizaz, nik zuzaz atsegin

Biek orozbat hartzeko?

Bana zer hobe etc.



Noiz ere batzen baitzitzautzat

Bidean iragaitean,

Minak zatiz arhintzen zautzat,

Zuri bi hitz erraitean,

Bana zer hobe etc.

Ur-sortak, ardur'arduratuz,

Harria xila zirozu;

Ni zuri, beti bet'eskatuz

Zinzurr'arhetsik niagozu,

Bana zer hobe etc.

Niri baibaten erraitera

Etzentozke choiz-ere?

Orai, zure minez hiltzera

Nohela, ikusiz berere?

Zeren berhetuz zuk gorreti

Baitagidazu zur'aldeti;

Zeren berhetuz zuk gorreti,

Baitagidazu horla beti.

II

Margarita,

Badaidita

Othe huts zin egitez,

Begiz urdin

Bezain gordin

Zarela zur'egitez?

Nik zupertuz,

Badut gertuz

Maitazarre zugana,

Zer profoitu,

Balin peitu

Bazara zu nigana?

Bertze lanik

Baduta nik

Diela hanbat denbora,

Zure artatzez,

Zerbitzatzez,

Et onhestez kanpora?



Alabana,
 Enegana,
 Orano eia zurekik,
 Heldu denez, Deus ogenez,
 Eta gaitzez bertzerik?

Hanbat beti
 Gotorreti
 Egiten derautazu,
 Baninz bezain
 Zenbait betzain
 Edo ilhagin zarpazu.

Haur hal'ezten,
 Ardirezten
 Baitzituket batzutan
 Ez agerri,
 Ez enzuerra
 Eztateien lekutan,

Han erasten
 Zerik hasten
 Bainaiz ene gaizkiaz,
 Eta, nure
 Bezain, zure
 Nola nizan egiaz,

Zu bertarik,
 Artetarik,
 Ez trostaz, ez urhatsez,
 Bana zoaz,
 Laurherroaz,
 En'erranak phuztatzez.

Horiegatik
 Orogatik,
 Etzinzuket ehula
 Baninz fida
 Zuk gupida
 Noizbait nindukesula;

Bana bertze
 Ez ikertze
 Gaurgoitik ukeiteko;
 Oradrano
 Duzun bano
 Ongi niri egiteko;

Enendauke,
 Ez elauke
 Bertzebat hunl'oboro,
 Net bilaizi
 Baliz baizi
 Zenzuz edo burzoro.



Eia bada
Ordua da,
Zuretan has ziteen
Ene hartzen,
Et'ohartzen
Zeren zordun zaudeen;

Nola nizaz,
Motil-gizaz,
Ziren, iraganean,
Zerbitzatu,
Et'ohatu
Nezka ooren gainean,

Zenbat nizan
Zutan izan
Beti tink eta ekhuru;
Zein manura
Er', ardura
Erpai, ern'et'aiduru:

Gerp zizaz
Zeinen luzaz
Ukaturik nagoan,
Eta halaz,
Hanbat alas!
Errekeitu gaxtoan.

Horik harren
Oro barren
Galkatuz bihotzera,
Berz'atunik,
Bana hunik,
Gogo egizu hartzera.

Et'uztazu
Gutiziazu
Nizan horri berere
Amerztera,
Pot-gitera,
Dudan zuri botere.

Gero azkenik,
Beharrenik
Emadazu dudana,
Margarita,
Jin-kongita
Gauan behin zugana.



III

Argia daritzanari

Gauik, egunik
 Eztinat hunik,
 Hireki ezpaniz Argia:
 Hireki ezpaniz
 Itsu hutsa niz,
 Zeren bai hiz en'argia.

 Hirekil'aldiz,
 Bederak'aldiz,
 Bazter lekutan baturik,
 Nonbait banago,
 Nun botzen-ago,
 Ezi Errege gertaturik.

 Lagun-artean,
 Hel nadinean,
 Elhaketan, erhogoan,
 Eznun dostatzen,
 Eznun mintzatzen,
 Hi beti, beti, aut gogoan.

Nik dudan lana,
 Ezin errana,
 Zer koeinta dudan higati:
 En'exil, eta
 Maiz pensaketa,
 Egonak ziotsan nigati.

 Kadran-orratzak,
 Burdin-aitz latzak
 Hunki-eta buztan mehea,
 Xuxen, han hara,
 Eguerditara
 Diadukan punta xehea.

 Ni, hala hala,
 Tiraz bezala,
 Hik joz geroz bihotzean,
 Hiri gorpitzez,
 Beti, ed'orhitzez
 Narrain, bait'are lotzean.

 Bana herabe
 Staliri gabe
Dinat, Argia, jitera
 Hir'etx'irira,
 Leku agerira,
 Jenten minz'erazitera:



Beraz higanik
 Egin, jadanik,
 Noiz nakidana dakidan
 Jin, eta nura,
 Gorde-lekura,
 Eta hi han bat akidan.

IV

Zuzaz bertzerik
 Nehor maiterik
 Eztudalarik herrian,
 Zu bezain gorrik,
 Ez hain gogorrik
 Eztudala d'aguerrian.

Zu gabetarik
 Dohatarik
 Aspaldi hontan denbora,
 Banaiz jaikiten,
 Banaiz etziten,
 Zu zatozt beti gogora.

Bana, nabaski
 Zuretako aski
 Enaizela zinetsirik,
 Zuk ni zureti
 (Aiher naiz) beti
 Nadukazu berezirik.



Atsegin ustez
 Har zur'ikustez,
 Beti, zu zaren lekura
 So xuxen ari
 Naiz, zenalkari
 Okerraren eredura.

Zuk zenbat usu
 Haur baitakusu,
 Begi bazterraz laztana,
 Alabadere,
 Soz behin ere
 Etzindezke jar nigana.

Zu nahiz batu
 Eta minzatu,
 Hora nol'erbiratzean,
 Bazterrez bazter;
 Bethiere laster
 Ari naiz zure hatzean;

Bana jagoiti
 Beheiti, goiti,
 Zenbat ere bainabila,
 Zur'oldez, ehun
 Bat enaint'ehun
 Urtez behin zurekila:

Aldiz naiz latzen,
 Bilhatuz batzen,
 Ban'ez ber zaitudanean;
 Zer gaitz jasaiten
 Dudan erraiten
 Ezin derauzudanean,

Edo zoriak
 Non-bait, bi-biak,
 Noiz ere heltzen baikitu,
 Han, ni nigartzu
 Ikusiz, hark zu
 Gogoeritzen ezpazitu.

Ni honen bero
 Nakuszun gero,
 Zure gogoz maitatzera;
 Zu zerk hain haitu
 Egiten zaitu
 Nizaz ez gogoratzera?

Hel dait'asturuz,
 Bertz'anhitz buruz
 Norbait ons'eginagorik;
 Bana ni bano,
 Ez egundano
 Nehor zuretarragorik.



V

Nik eztut ehor maite zu beizi,
 Zuk zeren nahi zuzu ereizi?
 Engoitik ordu zinuke hontu,
 Eta nizaz eduki kontu,
 Nahi ezpanuzu net hil-urhentu,
 Nola bainuzu ja hurrentu;
 Ezi bihotza, zu beti hala
 Ikusiz gibel zauztadala,
 Hotzarriturik orai hil-hila,
 Hoboro nitan eztabila:
 Bana zuk nahi baduzu sarri
 Harzara piztu et'eratzarri,
 Nonbait, egizu, Jainkoaren partez
 Ikus zitzadan zenbait artez;
 Bana zureki nahi nikezi
 Elizan nehor zuhaur bezi,
 Et'ekuslerik ageri elizan
 Lekutara zindiaurizan.

 Batzutan, luzez, luzez otoituz,
 Zure bihoz gogorra goithuz,
 Norabait jitez hitz badidazu,
 Hur ere ger'eztadukazu.

Nonbait, bi-biak, heltzen bagira
 Zu beti lehiatu zira;
 Orduan, bi hitz zuri erraiteko,
 Zur'eskuari banatxeko,
 Bertarik nola, samur-samurra,
 Belar hori zimur-zimurra,
 Utzi zitzadan manuz baitzauzat,
 Etxekiterago eniz auzat.

 Gauaz, epaizkaz, zur'etxen sartuz
 Em'ibiliz, eme hatsartuz,
 Eta haztatzez, ganbara bitan
 Iraganik, beldur handitan,
 Net hatshanturik, zur'oh'ondora
 Banatorra, zuk heiagora
 Egiten duzu, ni hautemanik,
 Et'ordu hartan, gaxoa nik,
 Leihoti jauziz, ohoin'iduri,
 Hilpenan behar dut itzuri.
 Noiz ere bai-naiz hauzaz orhitzen,
 Zin zinez, baniz hil-nahitzen;
 Hiltzea gaitz da, gaitzago bana
 Mait'uken, et'ez mait'izana.
 Harren gaurgoiti zerbait hongoaz
 Urgatz nezazu jaungoikoaz,
 Ezi ezta deuskai edertarzuna,



Lagun ezpadu hontarzuna;
 Ainziti, ederrik gaitz dena, duzu
 Berhala, nol esne'uluzu
 Denean, edo sagarra harzu,
 Haur ederra buru zakarzu,
 Edo anderauren begitartea,
 Pikot'orbainez net bethea.
 Beraz, zirentzat xahu eztakuruz,
 Hel zazkio, sober'aiduruz,
 Zugatik hiltzen ari denari,
 Eta hur'otoi urrikari;
 Ezpere, hura hilen d'eta zu
 Harzaz-huts zirate hospazu,
 Gizonbat galdu dukezulakotz,
 Zergatik? maite zintielakotz.

VI

Maitenaren gal-kexua

«Complainte de la perte de la Maistresse»

Amets, al'egia, d'ote nik enzuna,
 Emaiten duzula zur'edertarzuna,
 Hon eztaritzotzunari,
 Moien apurbaten sari?

Laur urte du, zuri beti jarraikitez,
 Higatzen naizela, bai zerbitzu egitez
 Ezteiari gertatzea
 D'auherretan higatzea.

Eztuzu zer uka, zarel'ogenduru,
 Ez zer har ait'amen nahia ztakuru,
 Ezta, maitezko gauzetan,
 Haurren borx'ahalik hetan.

Egundan'ez-ailiz jaio gaxtagina
 Ederza, nezkato onaren zegina,
 Edo jai'-eta, berhala
 Hil ailiz, inhar bezala.



Onarzun-truku huts, alab'ezkontzea,
Ezta hori ezkontze, bana da saltzea;

Haren erosle senarrak
Zer merezi luke? adarrak.

Ikus, jende hunak, ikus ene pena:
Alxatzen darote nik nuen maitena;
Hurren uste nuenean,
Haur dakusat urrunean.

Gau-egun, goiz-arrats, edate-jatean
Ebilte-gelditze, jaikite-etzatean,
Zuzaz dizut pensamendu
Neure penen luzamendu.

Kexeri, deitore, nigar-herakiak,
Hek ene baraskal, hel auhal-jakiak,
Zipak ene lo-lehenak,
Gau-korrongak hasperrenak.

Behar dudan gero zuzaz net etsitu,
Et'ezteiaritzat lurean gelditu,
Betor betor herioa,
Bizi'ene hastioa.

VII

Aspaldi neure gogara,
Libertatez biz'izanik,
Orai dakusat harzara
Neure buru'atzamanik,
Gotor, eta gor izatez
Galdu nahi n'aien batez.

Erran baderaukat ezi
Oro harena nizala,
Nehor ere, hura bezi,
Onhetsirik eztudala,
Bana horregatik hura
Ezta nizaz arregura.

Alabaina nik eztakit,
Zerbitzatzetz, ohoratzez,
Othe niroienez akit
Ene beti honlaketzez,
Edo berur'ene penez
Nozpait kexa laiteenez.



Maite'otoi ikuskizu
 Mirakulu zaukezuan,
 Nitán hotzak hatzen dizu,
 Oren oroz, gortarzuna,
 Zu niganat hotzen-ago,
 Ni zugarat gortzen-ago.

Urruntzen nitzauzunean
 Nizaz eztuzu orhitzerik,
 Ez, hurrentzen nizanean,
 Zein ere den ikertzerik,
 Ez behin-ere gogorik,
 Niri hunki egitekorik.

Ene ditxa gaitz'egieki,
 Ardura dut borogutzen,
 Zure hontarzunareki
 Nitán gainen gudukatzen:
 Batak etzitukedala,
 Baietz bertzeak dioztala.

Zein ahal den egiati,
 Zuk bezi ehork etziakizu.
 Bain'engoiti Jainkoagati
 Dakidan nik'er'egizu.
 Ezi ordu dut jakinzu izan,
 Hil, ala bizigei nizan.

VIII

Zenbat leihorra zabal baita,
 Ehon erakutsiko zaita
 Anderaurenik, ez eta nezkatorik,
 Ni nizan bezain, zorigaitzetakorik,
 Ni nizan bezain, zorigaitzetakorik.

Maite dut, eta naiz maitatu,
 Bana naiz hanbat dezditxatu,
 Ni maite nuen, nik maitenik dudana
 Ezt'ehon hauzu hurbiltzera nigana.

Nihauren azkazi hurrenak
 Dira poxelatzen dutenak,
 Eta nutenak nihaur er'asaldatzen,
 Zergati baitut hura hanbat maitatzen.

Ezteia haur enganioa,
 Jarriz geroz amorioa,
 Lotsaz uste dutenean gal erazi,
 Et'ehor gaizki tratatzez irabazi.

Maitarien jaun erregeak
 Higu ditu bortxa-legeak,
 Eta haren resuman libertatea,
 Da gobernari, eta nabusi alkatea.



Bana begit'egin-ahala,
 Zu gibel-ber etzazkidala,
 Ene bihotz', ezi zu bazaud' eneki,
 Ni bizi eta hil nuzu zureki.

Eta hargatik utzi baniz
 Ahaid', adiskidez fida niz
 Zeruko jaunak, hari gomendaturik,
 Enuel'utziko net deskonsolaturik.

IX

Xuria daritzanari

Berritzen ar'iz, XURIA,
 Nitan, egun guziez,
 Noizten begiez
 Egin erautan zauria;
 Et'ene bihotz gaxoak
 Higanik, maita-sari,
 Herskailu ordari,
 Zitin tragasa-xiloak.

Beti, joz-joz, daritzana,
 Inkudeak bezala,
 Diraukedala?
 Ez ez, ahal aint'engana,
 Eztun alzeiru, ez burdina,
 Ez-eta berun hotza,
 Ene bihotza
 Ban'aragiz dun egina.

Hiltzen nun itzurbiderik
 Ez deus salba nezanik
 Eztun, higanik
 Ahal nukeenaz berzerik;
 Hobe duken ainik ere,
 Honki egite', engoiti,



Ezi ez jagoiti:
Hel akit', berant bad'ere.

Zerbait eur'oontarzuneti,
Bihotz hunen pitzgarri,
Emadan sarri,
Begiratzeko hiltzeti:
Ezpadidan, lur orotan,
Zeren hik hil banuken,
Aipatu duken
Hir'izen', izen gaixtotan;

Sendotzen banun, ainziti,
Zeren nuken idoki
Halaz osoki,
Sartzeraz geroz, hobiti,
Hire sendagailu hunen
Berria herri orori,
Berri hon hori,
Dinat goraki eranzunen.

X

Hanbat nago penatan,
Nik eztakit nolatan,
Gau et'egun gorbatek / naduk'arrenkuretan.

Izena du Graziana,
Grazia beth'izana;
Dohainetan naduke / harzaz maitatu izana.

Ezta gupi, ez zeihar, ez,
Bana xuxen bizkarrez,
Zehe-batez lait'izar / gerri hori, meharrez.

Adatz ikustekoa,
Aztaleranokoa,
Leunez,baitare mehez, / zetaren gainekoa.

Ederrenen bardina
(Ezpadohat'aitzina)
Da begitartez, eta / diskret oboro ezina.

Ahoño, mihi ozena,
Hortzik den aratzena,
Begi bizi, so hutsaz, / maitarazi diroena.



Lepo'arrai miratzeko,
Goxo besarkatzeko,
Bolharr' ask' ilhunbean / argi zerbitzatzeko.

Oina, kaizuz, nolako?
Ikusten gogarako:
Ukaraia, besoa, / arhan-lil'-itxurako.

Esku eta zango biak,
Xuri bezain guriak,
Erhi mehe, gaineti/ zilharstatu ikusriak:

Hanbatez beud'erranak
Agerriz dadutzanak,
Eztazkit ezterraket, / gordailluan daunzanak.
Elkoit dakit elkorra,
Esker gabe, gotorra,
Del'enezat, bait'are / harri bezain gogorra.

Erran draukat ardura,
Zer den en'arrenkura,
Eta nola jabetzat / hartu dudan berura.

Nola nitan botere /
Duen, handi hal'ere,
Eta berze maiterik / nol'eztudan batere.

Bana hura, hargati,
Nizaz ezt'axolati
Et'enu itoiten, berak / sartu nauen, penati.

Kausit ahal baneza
Nonbait berhez-berheza
Hunl'ene penatzea / baka bide baileza.

Haren begitartea
Garbi, arrosaz bethea;
Halaz da gertatu ere / bihotzaren jabea.

Lepo'argi miresteko
Goxo besarkatzeko,
Bulhar'ask'ilhunbean / bela zerbitzatzeko.

Oina xoil onz'ansatu,
Halakoz engrainatu,
Eskua bol'iduri, / beso ezne-gatzatu.



XI

Beltxaranari

Nik hanbatetan errana
 Nahi eztuna sinhetsi,
 Aizel' onhetsi
 Nizaz, anhitz, Beltxarana?
 Bada dela hori egia,
 Prest nun erakustera,
 Et' egitera
 Mana nezana guzia.

 Ezar nezan porogutan,
 Ordea hanbateki
 Ez, isireki,
 Har den' eztela burutan;
 Zer probetxu edertarzuna
 Da hire gorputzean,
 Tink bihotzean
 Badatxen gogortarzuna?

 Zor din maitatu izateak,
 Ordainetan, maitatze;
 Zer al' ahatze
 Zauzkin maiteri-legeak?

Aldiz dun maitariaren
 Mait' orde hig' ukena,
 Eder eztena
 Hi bezalako ederraren!

Halaz gaizkitze hunetan
 Nun alabain ezarri,
 Dolu-egingarri,
 Huna niagon hil minetan:
 Ezpanun hant' idokiten,
 Zordun izan bezala,
 Hik hil nunala,
 Dinat hil aitor' utziten.



XII

Aspaldian nabila
 Hor, hebe, laztan bila
 Et' orai, nahi-nola / batu naiz batekila.

Hur' ezagutzen duten
 Oro haren bertuten,
 Goresten, eta bertzer / ari dir' eranzuten.

Haren eder izana
 Da hain gauza bekana,
 Ezi eztuela kiderik / baita jenden errana.

Nol' arrai miratzea
 Baitu, eme mintzatzea,
 Gozo, gozo ere handi / da ari behatzea.

Gorputza duelarik
 Luzekara, halarik
 Xuxen du, et' ezta lodi, / ez mehe soberarik.

Begi xiloak ditu
 Izar bigez garnitu,
 Begitartea hanti / zauka hanbat argitu.

Buruko bilo hori
 Urhea bezain hori,
 Bana gordetzen du, eta / salhatz' ezta hori.

Kristalez du belarra
 Sudurr' oro zilarra,
 Mazelak xuri-gorri, / perla hutsez bidarra.

Ezpainak badirudi
 Dela kora-isuri
 Hortzak, lepo, bulharra / elhurra bezain xuri.

Oin, tipiz, herotsduna
 Zango aratsu, xuguna,
 Eskua xuri, nola / arraulze berri erruna.

Horik nik hautemanik,
 Eta gogoan emanik,
 Hanti nag'orai haren / saretan atzemanik.

Nagoen han, nahibada,
 Ezi sordex ezpada,
 Haren presondegia / ene laketgia da.



XIII

Joanaren bethengizarrea

Batez nago harturik,
Hura gogoan sarturik,
Ezin hil, ezin biziz, / nago net eiharturik.

Burutik oinzolala,
Berregin den bezala,
Dohainetan neduke / haren zerbitz' ahala;

Zeren baita hain haitu,
Eta zeren garhaitu
Prestuz, et'ontarzunez, / bertze nesk' oro baitu,

Zeren dena guzia
Baita ber-zuhurtzia,
Eta jakitarzunez / orozaz gainti utzia.

Minzatze ederretako,
Zpritu are hobetako,
Adimenduz, eranzun / nik ezin bezalako.

Kaizuz doi, ezi bara
Sorzainak eskuetara
Hur' egitean, hartuz, / jakin du zertan bara.

Haren izena JOANA,
Ez' ote gaizki emana?
Ezi orai heldu dena / nola lizate joana?

Haren gorputz lerdena
Da nik dudan maitena;
Baitare gerri, hersiz, / orotako lehena.

Haren ahorpegia,
Zer, baderragu egia,
Zer derrakegu dela / baizik izartegia?

Lehenik, bekokia
Moldeaz idokia
Iduri, iguzkiareki / argiz ihardukia.

Gero ahutz-araldea,
Potarentzat lardea,
Ezt' igelsu, ezta zilar, / bana kristal-ordea.

Aldiz bi beharriak
Xuri miragarriak,
Saldoa maitariri / gorheritan jarriak.

Oi, zerik du sudurra!
Ez egi', ez apurra;
Xorhi, begi-hontgarri, / hala hala muturra.



Ezpainak, arros' orri
 Gorriak bezain gorri:
 Hortzak aitzintzen, zuriz, / ezein ezne isurkorri.

Zer, ahatz lakidita
 Haren begi polita?
 Al', ez aski goratuz, / hutsik othe daidita?

Begi gureak-ara
 Zzirudien bertara,
 Bana kanbiatu da / geroz izarretara.

Bidar-hori, berhala
 Nola boli-zotala,
 Lepoa perla biziz / orhatua bezala.

Ugatz gogor, lar-xuri,
 Leunez balus' iduri;
 Mokoetan xartaturik / koralez bi mohuri.

Balin balu, sabela
 Garhi nerrake dela,
 Ezi, segurtatzeko, / eztu ezagun duela.

Zango xorhiki egina
 Paieruz hob'ezina,
 Besoa bertz' ororen / patroinatzat sor zedina.

Esku erri et' ahurra
 Hain xuri, zein elhurra,
 Oina doituz bezala / meharr' eta laburra.

Buru ederreko adatsa
 Laxurik baderatza,
 Badaitso gerriraino / urh' izpiz aberatsa.

Gainerakoz, bihotza
 Al' urrix' al' orotsa,
 Duen, izterbegiak / porogatuz bihotsa.

Horik erran bezala,
 Zeren baitira hala,
 Dohainetan neduke / haren zerbitz' ahala.

Baletsa jaungoikoari
 Har nezan zerbitzari
 Hark er', eta leristan / hanbat on zein nik hari,

Orduan pausu nuke
 Eta nihaur neduke,
 Handiago baninz ezi / Baroin, Kont', edo Duke.

Banau er' iraziko,
 Eztut ez gaitzetsiko
 Baizik ogen guzia / nihaurtar' egotziko.



Ezi aspaldi du haren
 Merezi handiaren,
 Ezagutza dudala, / et' en' eskasgoaren.

Alabader' orano
 Nahi dut zertarano
 Kortés den jakin, lehen / etsirik hartu bano;

Zeren, nol' ene maite
 Ukeiteak iraité
 Baitu, hur' ere agian, / luzean goga daite.

XIV

Neguan, elhurte batez,
 Laztanak eskutabatez
 Sudurra zapaturik;
 Sudurrak min-har etzezan,
 Bana bertan sendi nezan
 Bihotza suharturik.

Elhurraz gaineti,, hotzik
 Bai karroinik, bai izotzik,
 Badeia deus lurrean?
 Elhurak alabadere
 Naduka ni, hotz badere,
 Errerik bihotzean.

Haur da lurreko legea,
 Gauz' orok ber' ekoiztea,
 Bera iduri du egiten;
 Ban' orai, miragarritan,
 Hotzak beroa du nitan,
 Urak sui' eraikiten.

Bero huntarik liparbat,
 Su huntarik huts inharbat
 O laztan' erexeki
 Ahal banezazu zuri,



Nitzatela zait iduri
Sendo hainbertzereki.

Beraz otoi, Jainkoagati,
Lipar, inhar bategati,
Iraitz enezazula;
Ban' erakutsu maitari
Gaizoak, bai urrikari,
Bai gupida tutzula.

Egitez horla, zinetsu
Eder bezain onbidetsu
Izanez, aipatua
Zirat' orenen ahoetan,
Et' amorosen gogoetan
Zerurano alxatua.

XV

Ni zuretzen has bezain sarri
Berhez nindizun bertarik,
Lehen hautatu maitagarri
Nituen, nindutenetarik,
Orai eta betiereko
Zureki tink egoiteko,
Eta berhez neholatan
Enankidizun gisatan.

Geroztik esperanzaz hazi
Dut neure maitakaria
Egunez egun irabazi
Ustez zutan ordaria;
Ban',ene zori gaitzetan,
Enaiz orano deusetan,
Harriz da zure gogoa,
Ezpada gogorra.

Horrenbat gogor izatera
Zerk zaramatza gogatu?
Zur' onhesteaz etsitzera
Nahi nauzua bortxaatu?
Alaz, berdin ni galdurik
Eztadukazu baturik
Non-nahi-den nik bezanbat
Bertze zerbitza zaitzanbat.



Ban' etzar' aski gaitz, daritzat,
 Gaizki horren egiteko;
 Galbidera, maita saritzat,
 Maite zaituen' egozteko;
 Izterbegia minzutzen
 Delakoz guzaz, kexatzen
 Hark zaitu, hanti datorra,
 Zure niganat gogorra.

Zer ere zugati, nigati
 Bailedask' izterbegiak
 Gal zaitzadan eztu hargati,
 Merezi ene maitegiak:
 Aitzitik haur da zuzena,
 Zeinek baitu ogena,
 Berark dezan bak' isuna
 Eta har ahalkeizuna.

Hark zer er' ahal bailiotsa
 Badaidiel' uste duzua?
 Ene bihotza, haren lotsa
 Oran' eztazaguzua?
 Ikusi nahi baduzu
 Hain zail denez, zein poruzu,
 Zato, zato so' gitera:
 Banohako jaukitera.

Jauki dizut, et' ihesari
 Dema, hara, laurherroan:
 Arauz, zein eder lasterkari
 Den zuri erakuts-gogoan;
 Biz hala, hal' ezpada' ere,
 Etziren-ber zu batere
 Larde, gaurgoitik, oinaren
 Puntan bihotza duenaren.

Beraz biho' en' artizarra
 Larderi' oro kanpora;
 Eraketsu zutan den garra,
 Eta zure bihotz gora:
 Izterbegia puxatuz,
 Eta zinez mehatxatuz
 Etx' ezazu, edo kuluaz,
 Aski ezpada mehatxuaz.

Hal' egitez zur', ene bano,
 Eginen duzu gehiago,
 Zeren bainaiz, bizi nizano,
 Nihauren bano zureago:
 Hel zaizkit gauger', otian,
 Heltzekoz zure bizian,
 Ezpad' en' asperragati,
 Ezpererik zureagati.



XVI

Nahiz ezpegi
 Gauaz ilhargi,
 Ni zure begi
 Ederrek argi,

 Heien gordatzen
 Espazin' ari
 Beti miratzen
 Dagotenari.

 Zuk hori egiten
 Bezanbatetan,
 Naiz eri etziten
 Bihotz minetan.

 Min' iragaiten
 Zautan artean,
 Nehorat joaiten
 Zauzkidanean,

 Zerik inhara
 Naiteeno akit
 Noa horra, hara
 Nor' ezpaitakit,

Ustez naiteen
 Hel erortera
 Zu zirateen
 Leku berera.

 Halaz batzutan
 Batzen bazaitut,
 Baten lekutan,
 Neke biga itut;

 Zeren nik zuri
 Emanik bahi
 Bihotz', itzuri
 Baitzauskit nahi.

 Zurekin batu
 Et' aise gabe,
 Su naiz bilhatu
 Ta kisu labe.

 Laster hil dadin,
 Su haur egizu,
 Ilhaunt enadin,
 Ahal daidizu;

 Maita nezazu,
 Halaz hil daite;
 Ezpanezazu
 Hauts gertha naite.



XVII

Ezkontidearen hil-kexua, Museen kontra

BERTANKO ILHOTS HAUR gaztaroan egina ez

Izanagati, eritsi dut etzakoela hemen gaizki.

Andreak luzez zerbitzatu
 Zaituztet, eta nik hospatu
 Dut herri hautan zuen izena,
 Lehen guti ezagutu zena:
 Nik zuen azturak et' atunak,
 Gu baitan orano ez enzunak,
 Argiratu' tut ilhunbeti,
 Et' aterarik herratzeti
 Guretu, et' eman hek Euskara
 Kobla honzalen eskuetara.

Aspaldi nolha zuen norhabe
 Izan bainaiz, zuek ene jabe,
 Uste nuen nihaurk er' ekaitzak
 Jo banenza, neure zurkaitzak
 Zintuzkedal', eta habeak,
 Neur' aizolbe, neur' aterbeak;
 Uste nuen hala, ban' eskierki,
 Enganatu izan naiz elgerki;
 Ezi behar-beharrenean,
 Hel-helez egon naizenean

Etzitzauzte hurbiltu, ez heltu
 Aitzitik zitzauzte gibeltu:
 Utzi derautazue hiltzera
 Joana, ene bizi erazitera,
 Berainik lurrer' etorria,
 Edo zerutik igorria;
 Joan', en' emazte karioa,
 Ene bihotz' ene gogoa.
 O zer hiltze latz' enetako!
 Hura galduz gero zertako
 Hemen, ala gaitz-beha nago?
 Egonago, eta zordexago
 Dukedala dakusat, ezi
 Orai alderdi ezpainiz bezi,
 Aitzinara naiz hebainduko,
 Enbaldituko et' ezdeustuko;
 Zeren bainaiz harzaz gabetu,
 Zeinzaz sentatu eta hobetu
 Uste bainuen, zahartu ondoan,
 Nol' izan bainaiz gaztaroan.
 Lehen neur' egitekoen haxe
 Bakoitza baitzautan zortaxe,
 Orai baititut baten' biga,
 Haren', enea, nol' ez higa,
 Nol' enainte jasan-ezinez,
 Eta soinak ihes eginez,
 Buruzpiko edo larrapoka



Eroririk, oro porroka?
 Aspaldi du, hark arrenkura
 Ezpal' ukan nizaz, zupura
 Joan ninzatela, eta xixari
 Ehunen egin han janhari.
 Hura, noiz ere bainendukan
 Ohaturik minak, dut ukan
 Neure zain, et' egon zait beti
 Igitu gabe sahietsi,
 Geldi han, ern' et' iratzarri;
 Et' ebilten has bezain sarri
 Zerbizatu zait besapeko,
 Erorteti begiratzeko.
 Hark, erian nol' eheinatzan,
 Sendoan er', ene geinhatzen
 Zakien; bait' are pausu emaiten,
 Bihotzak zautan-kal ehaiten;
 Hur' ene soberaren doitzen
 Jarririk, ari zen noiz goitzen
 Ene samurreg'izanaren,
 Noiz ene bihotz epelaren
 Gar behar zen gauzetan, gortzen;
 Et' egin bidean gogortzen.
 Herriz kanpoan nenbilano,
 Bertzen koeitak, neureak bano,
 Hobetsiz, heier jarraikiten,
 Hark zautan neureak egiten.

Nangoenean noizpait udalen,
 Andreak, zuen alhor zabalen,
 Nihaurenak gibel-emanik,
 Et' egin-gabez hetan lanik,
 Ikusten nituel' ezteialtzen,
 Hark zerauztan hutsak estaltzen;
 Egiten nik egin-beharrak
 Berak hartzen golde-nabarrak,
 Bera jarten itots-emaiten,
 ber' ereiten, ber'ogi epaiten,
 Et' oro berak lant-ahala
 Lantzen, izan baliz bezala,
 Ez aitoralab', et' emazte,
 Ban' ezein nekazale gazte.
 Horik jakinik zuek gertuki,
 Etzinateen hitzeraduki
 Hartzaz bertz' art' idukitera,
 Utzi gabe hal' hiltzera?
 Badakit erranen duzuela,
 Lurrean jagoitik eztela
 Izan xipirik ez gehienik,
 Zein bere mugan hil eztenik.
 Bizi hunek (aitor dut hori)
 Ezin dirauke beti ehorti;
 Bana hur' ezta hil zahartuz,
 Baizik higatuz, et' eihartuz
 Errekeituak eman-gabez,



Et' ez hek' hartzera herabez:
 Nola baratze lantzekoan
 Girofleiak, uda beroan,
 Ur-peituz lehenik ximaltzen
 Baitir', eta net gero galtzen.
 Ezi balitu Jainko-axeter,
 (Zeinen baitzarete bereter)
 Izenez Phebuz daritzanak,
 Hartan egin ber' esku-lanak,
 Eta luen ikertu eta lotu,
 Segur da zatela sendotu:
 Bainan ezpaitzauzkot' otoitu
 Hala hur' er', ed' ezt' orhoitu,
 Edo zauke' orobat izan
 Joana hil edo bizi lizan.
 Beraz nizaz hain axol guti
 Duzuen gero, zuen zerbitzuti
 Naiz, oraidanik, ment' orotan,
 Jalkiten, ez.itzultzekotan.
 Bad' ez nehor niri obororik
 (Eztudan gero gogorik)
 Eske jar kobl' edo kantore,
 Baizi nigar eta deitore;
 Ezi eztuket berhain asperrik,
 Joan' enea zenbait hil-errik,
 Lupean, air' edo zeruan
 Derakustano den lekuan.

JAINKOAZKO NEURTITZAK



XVIII

Hamarkuna edo Jainkoaren hamar manuak

Jainkotan bat huts jauretsak

Eta bertzerik zinhetsak

Jainkorik ez jainkoaizunik

Ezin datekiela hunik.

Haren izen' alferretan

Ez erabil eur' elhetan,

Igand' egun', orhituki,

Iragan ezak sailduki

Ait' et' am' etzak ohora,

Bizitzeko anhitz dembora:

Ezadil', erhaiten ari:

Ezizal' ohaidekari,

Ez' ohoinkeri' egile,

Et' eztezala desea,

Nehoren er' emaztea

Alhor, motil, nezkatoa,

Idi ez on gainerakoa.

XIX

Elizaren manuak

Begir' etzak jei-egunak

Elizak derakutskunak

Eta, hutsik gabe, meza

Hetan enzun albaiheza.

Barur egik jeigeietan,

Berrogeian, laur mugetan,

Bait' elik' aragi jatez

Orzirale larunbatez:

Eztakiala joan urterik

Eur' aitorr' egin gabarik

Gaizki eginez Apezari;

Eta guziz Pazkokari;

Bask' adi zeruk' ogiaz,

Jesusen gorputz biziaz.



XX

Eguberri-koplak

Zerik gogatu izan baita

Zeruko aita

Gure berherostera,

Seme bakoitza hartako,

Saritako

Igorri du lurrera;

Bere odolaz mundu hunen

Teiarzunen

Osoki garbitzeko,

Eta hilik zatzanaren,

Gizonaren

Bere hilaz pitzeko;

Eta zeren hal' atsegin

Baitzuen, egin

Zedin gure laguna,

Eta Jainko izanareki

Eretxeki

Ledin gizatarzuna,

Nezkasobat amatako

Galileako

Nazareten hazia,

Baderauka hautat' ukan

Baitzedukan

Zeinek izen Maria.

Aingerua hanbatekin,

Hitz hauekin,

Nazarete hirira

Ethor zedin berri haren

Mariaren,

Heltzeko beharrira:

Ongi zaren, o, lurrean

Izatean,

Bardirik eztuzuna,

Zu zara Jainkoaren ama,

Gaitzen zama

Jenter dedetezuna.

Zure bizitze zuhurrak

Zeru-lurrak

Derakarzke bakera,

Ezi Jainkoaz zar' izorra;

Hark nigorra

Hunen zuri erraitera.



Inhardets zezan hitz hotan:

Zer anzotan

Gerta laite diozuna?

Haurlanik gab' ama deia

Ene deia?

Haur jagoiti enanzuna!

Aingeruak: hori bada

Egia da,

Ala diotsu, Maria;

Jainko jauna zutan duzu

Ezaguzu

Haren indar handia.

Mariak berriz ziotsona:

Haur ni huna

Jaunaren neskatoa,

Jaunak hala badaritza,

Zure hitza

Nitan egin bihoa.

Bazedin ordu berean

Otoitzean

Jar belhaurikaturik,

Non senti baitzezan sarri,

Miragarri!

Elhe' aragiturik.

Geroz, zezano ainik- eta

Urhent-beta

Hil-bederatzurruna,

Jainkoari eskerren emaiten

Iragaiten

Zituen gau' et' eguna.

Erdi-mugan ohatzera

Betlemera

Joan zedin Josepeki;

Non, bertz' errekeitu gabez,

Zatzan gauez

Bordan, Arsto-idieki.

Hanxe gizon-iduritan

Gauherditan

Jesus jaiio zekion,

Mihiskando' oihal lodiz,

Abel odiz

Ohakoa zegion.

Artzainak, jeusten hitz guti

Hauk zeruti

Enzunik (hergoretan

Bu gloria Jainko honak,

Bu gizonak

Bakea leihorretan).



Bertarik olhrietan,
 Nekotxetan,
 Artaldeak utzirik,
 Jesusen adoratzera
 Betlemera
 Joan zitezen larririk:

Zeinek eskuan matoina,
 Zeinek zoina
 Gaznaz bete daroa,
 Zeinek erdi berriari,
 Goiz-askari
 Lakioan anhoa.

Ager ziten' ger' ondorik,
 Nonbaitkorik
 Hiru zuhur, batetan,
 Hirurak herri handien
 Jaur-gehien
 Zein ber' aldirietan.

Hauk goiztirir' izarbati
 (Zenagati
 Berri) beha jarririk,
 Hartan Judu erregearen
 Sortzearen
 Senale' ardietsirik,

Lehia handirekila,
 Haren bila
 Judeako herrian
 Non dugu-otsez, jarri ziren
 Hur' ediren,
 Hari gurtu-nahian.

Jerusalemera jinik,
 Et' eginik
 Han hitz Herodeseki,
 Xurpail zekien hila-legez,
 Judu-erregez
 Aipu enzuteareki.

Karroitaturik odola,
 Hala nola,
 Orduz, merkataria,
 Sapparretik oldartzean
 Ez-ustean
 Bide-zelhataria:

Edo zerik ikaratzen
 Eta latzen
 Bait' erhaile gaxtoa,
 Datxekonean lepoti,
 Edo ukoti
 Erregeren besoa.



Gero berak, alegia
 Gutizia
 Joan Jesusi gurtzera,
 Hangaintik itzuli litezen,
 Egin zezen
 Otoi, berri ekartera.

Eta baietz hitz-emanik
 Hek, harganik
 Bertan despeditzeko,
 Erdu ziten Betlemera,
 Izar bera
 Jarririk aitzineko.

Han Jesus haurra baturik,
 Troxaturik
 Utzian zatzala,
 Gurrez jar zaskion apaltzen,
 Nor ahal zen
 Zakitenak bezala.

Insens' urh' eta mirrazko
 Emaitz' asko
 Eskeni deraukate;
 Itzultzean, Herodesi
 Bat-ihesi,
 Bide berri daroate.

Zeren, zegitela hala,
 Lo zauntzala,
 Uken zuten manua,
 Manu Jaungoiko aitaganik,
 Goradanik
 Hetara bidaldua.



XXI

Nunc dimittis, etc. Zimeonen kanta.

Jaun' orai, zure hitzara,
 Duzkizu bere gogara
 Bakez zure motila;
 Zeren zur' oldez sendatu
 Behar nauena, miratu
 Dut neure begiekila;

Zein apaindu baitzenden,
 Argizat, herri bilduen
 Begitart' aitzinean;
 Jenter gorde' agertzeko,
 Eta glori' emaiteko
 Izraeltarren artean.

Glori' aitari, semeari
 Eta gogo sainduari
 Eman bekie batetan,
 Hala nola hatsarreti
 Baitzen, orai eta beti,
 Mente mentekoetan.

XXII

Vexilla Regis, etc.

Orai gerlako bandera
 Du Alferitzak ahurrera,
 Orai nabaritu doa
 Kurutze misterioa,
 Zeinetan aragiaren
 Egileak gaitz igaren
 Bait' egonik hedaturik
 Oin-eskuak itzaturik,

Zeintan gaizk' itzatekirik,
 Eta zauriz juhiekirik,
 Lanza-zihite garratza,
 Punta-zorrotz, aho-latzaz,
 Xahu gentzantzat kozuti,
 Ikuz guenzan bekatuti
 Egon baita zariola
 Ez ur ban' ur-ar' odola.

Orai dira gertatuak
 David, Errege prestuak,
 Hitz neurtutan gauz' emanak
 Kantalotsez zerratzanak;
 Herriz herri zebilela,
 Eta guzier zioztela:



Jainko jauna gugatila,
Regnatu da zuretila.

Zuhatzetan d' ederrena,
Zur haur nonti bait' ethena,
Argi da, da distiatu,
Et' Errege-granastatu:
Zuhatz motaz hob' ezina,
Et' ongi hauta zedina
Honein saindu lohadarri
Lot et' eretxeke-garri.

Dohatsua, zeinetarik,
Zeinen beso bietarik
Urkaturik egon baita
Sekuru oren garhaita;
Gorputza, balanza nola,
Dilindaka zegokola,
Ifernuak zedukana
Alxaturik beregana.

Agur, o zur kurutzeta,
Zeintan baitatz' en' ustea;
Orai, pasion' aroan,
Jauna dutenak gogoan
Justotarik justoago,
Egizkik, et' aitzinago

Gaizkigiler utztez pena,
Gaizki eginez zor utena.

Hiri Jainko hirurkuna,
Guziek gehien uguna,
Gog' orok, bide bezala,
Elhesari demaiala;
Gu hiharen herioaz,
Kurutze-misterioaz,
Salbatu gaitualakoz,
Xuxen gaitzak sekulakoz.



XXIII

(Baionako liburuko olerki betegarrizkoak)

Ondoan narazarzuno;
 Gero zail edireiten zitut
 Eske gehiago nauzuno,
 Eta jartzen zauzt erranez
 Eztezakezul' eman, ez.

Enganatuko bide zira
 Gaurger', orano bezala
 Baduz' uste zure begira
 Egonen ahal nizala,
 Hautuagorik zu bano,
 Deiez ondotik dautano.

Orai jagoiti minzatzekoz,
 Minza gaitezen garbiki:
 Zuk nigati deus egitekoz,
 Egin ezazu gaiziki;
 Ezpaduzu egin gogorik,
 Nik er' ez luzatzekorik.

XXIV

Argitzean, eguerditan,
 Arratsean natzano,
 Gaua goizak ordaritan
 Biharamunt dazano
 Zuri huts, et' ez bertzeri
 Darraik' ene gogoa,
 Zuzaz, nola bait' er' eri,
 Nahiz izan sendoa.

Ile urrestatu horiek,
 Nadukate harturik,
 Begi leinhuru goriek,
 Lasto-legez garturik;
 Eta, zuk eginez baizen
 Zenbait-ere hongoa,
 Hoboro bizi ahal naizen
 Da gauz' ezinezkoa.

Nik gortharzun, zuk gorrtarzun,
 Derakuskegu elkarri,
 Biek bardin bermetarzun,
 Dugu hetan ezarri,
 Eta goaz, ja haraitzina,
 Ene zori gaitzean,
 Zein ondoti, zein aitzina,
 Zu ihesi, ni hatzean.



Nik nigarrak, zinkuriak
 Ene bizi lagunak,
 Zuk zuriak belzuriak,
 Poru, handitarzunak:
 Hezaz oradrano iraitzi
 Ikusirik nuzula,
 Orai onhestea gaitzi
 Dakit dakidizula.

Otoi, otoi, ene minak
 Gaurgoitik epa itzazu,
 Oranoko gaizki eginak
 Askitan edutzazu,
 Enezazula gal gorrez,
 Kalte jin lakidizu,
 Bana galde nauzun horrez
 Ukenduru negizu.

Edo nitan bad' ogena,
 Eta den huts eginik,
 Erakustazu zuzena,
 Zeren hura jakinik,
 Bertarik nuzu ikusiko,
 Hutsaz urrikiturik,
 Zur' aurkian belhauriko,
 Sabel-lurreraturik.

XXV Ederragoari

Zurekin ezagutze hartzen
 Hasiz gero, *Ederragoa*,
 Sendi dizut nitan eihartzen,
 Berzetratko amorioa,
 Orai eta sekulakoz
 Zure nizatelakoz.

Ban' alaz! hanbat dizut hugu
 Zureki minzatu ezina,
 Zeren jagoitik ezpaitugu
 Bi hitzen erran aizina;
 Orai, eta sekulakoz
 Zure nizatelakoz.

Mirets ziniro bazeneki
 Gau et' egun, zein ardura,
 Nahiz batzarre egin zureki,
 Jin nizan zur' okolura,
 Orai eta, etc.

Zurekin izatera haizu
 Ezpaniz ere gorpitzez,
 Alabudere banarraizu
 Bethi gogoz, et' orhitzez,
 Orai eta, etc.



Maitatu banazu, berzez goiti,
 _Nik zu zaitudan bezala,
 Zuganik hon ardietsi engoiti
 Pens' ezazu ordu dudala,
 Orai eta, etc.

Zuk niri uko badagidazu,
 Nik zuri galde bezanbat,
 Eridenik eztadukazu
 Nik nola maita zitzanbat,
 Orai eta, etc.

XXVI Laur karbarien eresia

Ora- gauan laur karbari
 Karban hanxe ziren ari,
 Egarriz borx' egon-eta / nehork ez hek urrikari.

«Nozbait,ala dioite elgarri,
 Aho hoi en hezagarri,
 Nonbait zerbait ezpadugu / galdu behar gara sarri»

Hori erranik, hauk doazala
 Hetarik biga, berhala,
 Baratzez baratze, xori / ihiztariak bezala.

Ezt' izan ehon hesirik
 Hanbat goraki hersirik,
 Non eztituzten gaintitu, / oillarrasiki jauzirik.

Joanez, joanez, azkenean,
 unhe-hurran zirenean,
 Sagardoibaten barnera / sar ziten, oren honean.

Han pikotzebat baturik,
 Frutaz oro kargaturik,
 Pot eta besarkaz lotu / zauzko, belhaunak gurturik.



«O zuhatz orsto-zabala
 (Dioitela) luzez izala
 Horl' ukensu, horl' ekoizle, / orai izana bezala;

Zuhatzetan hi lehena
 Aiz, hoben' et' ederrena;
 Dohatsu hir' orsto-adarrak, / dohatsu hir' ekoizpena.

Etzen ez deitatzekoa,
 Noizten, frutu bizizkoa
 Eu' amasok jan zezana, / bana bai, o hi pikoa.

Zeren hartarik alhatu
 Zelako, zen heriostatu
 Eua, baita haren leinu / oro minberaz kozatu;

Aldiz, pikoa, higanik,
 Hil-hurrenean izanik,
 Zitikeguk, guk biziak / osagarri hik emanik».

Hanbateki bata jauzten
 Adarretar', eta hausten
 Ari d' aldaken, bertzea / zuhartzaren iharrausten.

Bild' uken duten bezala,
 Biek jasan ezin-ahala,
 Herena, karbategiti / hetara haur datorrala.

Laurdenak ezpaitzakien,
 Ber' egonik zer zaidien,
 Sorgin, et' ohoinen lotsaz, / auzora laster zegien.

Hango atea, barax, jorik,
 Morroinbat han-berekorik
 Ager zekion, begitartez / anderauren-gisakorik.

Ustez zen anderaurena,
 Ager zezon bere pena
 Bai et' eska hur, edo arno / apurbaten ahamena.

Hark, zer zen gauz' ikasirik,
 Barnera sar erazirik,
 Eznez erregala zezan / bere zurati erautsirik.

Hanti-landan er' urzeki
 Zezan, gogo handireki
 Karbategira, bait' egin / karb' aldibat han hareki.

Gero bertzen, urrundarik,
 Jin- herotsa hautemanik,
 Berhez ziten, brist' elgarri / pot eta besark' emanik:

Arte hartan, hauk direla,
 Jauziz jauzi, nol' igela,
 Bertze hirurak, alzoak / piko, z bethe dakartzela.



Laurdena, (punsu jarririk)
 Herenak han ber' utzirik,
 Kexa zedin (alegia) / egon zela galetsirik;

Herenak zinhardetsana:
 «Eztinat nik ogen, bana
 Hihaurk, falta hirea dun / eneki jin ez izana».

Morroina beh' aurkintzetan
 Baitzauten, aldarte hetan,
 Zer egin ziroen, oldarbat, / egon zedin pensaketan.

Ger' oharturik, gazt-ara
 Hizkatzerik eskukara
 Jin zaitezkiela, joan zedin, gordailuti hek beitar.

Han jarririk ararteko
 Bilhakaiden baketzeko
 Igor zezan arno-bilha / pikoekin ezkontzeko.

Noizbait, bakeak eginik,
 Arno' ere orduko jinik,
 Uxtia zedin, pikoekin, / garhaitu gab' utzikinik.

XXVII

Etzintezkea jagoiti unha
 Ene hain gaizki tratatzez?
 Beti zuzaz ezin enzuna
 Lan duketa deitoratzez?

Deia dembora handi dizi
 Onsa dakizun bezala,
 Zuk eman esparanzaz bizi
 Et' ez deus bertzez nizala.

Sagartzeak, lilitan jarten
 Bad' eta, lilitu-ondoan
 Orstatzen ere, gero ekarten
 Du frutua ber' aroan.

Nik hatsean, lili-orde, zutan
 Bat' ukan ditut karezak,
 Gero ere bai orsto lekutan,
 Aski handirik promesak;

Bana zer probetxu azkenean,
 Haltza bezalakaturik,
 Lilitu, orstatu zarenean
 Ezpadakarzu fruturik.



Zur' ikusteko, eginik nago
 Borz lekoa bide lauretan,
 Bait' are hamar gehiago,
 Ez behin, baizi anhitzetan;

Ban' ezdeustzat zuk dadukazu
 Nik neke hartzen dudana,
 Et' eskerrik ezterautazu,
 Jiteaz hala zugana;

Aitziti ni ekus-eta, gorde
 Nahiz zabiltz' et' itzuri,
 Eta, hunki-jin erran orde,
 Ari zitzauzat belzuri.

Hal' ere zugana jiteti,
 Urrunak, ez belzuriak
 Enendezak' ez Jainkoaz peti
 Begira mundu guziak.

XXVIII

Zalgiz jaun, Paueko Korte gehianean
 Erregeren konseillari zenaren gorazarretan.

HAMALAUURKUNA

Nabusi lehenek lan berri guzietan
 Anhitz elhesari jardiresten dute,
 Hatsarrea zeren emaiten baitute,
 Zein erdia baita gauza gehienetan;

Ban' ere dutenek beteginzarretan
 Ezarten lan hura gehiago bute,
 Ezenez eskasik utziten balute,
 Ed' urhent-peiturik zenbait eretzetan.

Halakotz hik, Zalgiz, Eskaldun Poeta,
 Burura behar duk erramu-boneta,
 Zeren, nola baihaiz Parnason gainean,

Bederatzi ahizpez maiteki hazia,
 Heiek erakatsiz hik, gur adinean,
 Burutar' eman duk bertzek doi-hasia.

**XXIX**

Arrain jaun, Zuberoako Juje zenaren Ilbartitza

Arrain, gizonen haitia,
 Temisen bihotz maitia,
 Arrain, Museen haurr-hazia,
 Haur non datzan ehortzia;
 Haur du gorputzak hobia,
 Zeru' arimak hobia.

XXX**Jorralen koblak**

Jaukizarrea Motil Gaztearen aldeti.